

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak Enpresen Sektore Publikoa Berregituratzeko Plana osatu du

Urteko 28 milioi aurreztuko ditu sozietateen kopurua 38tik 13ra murriztean eta administrazio-kontseiluetako lanpostuen kopurua %47 gutxitzean

Miércoles, 05 de octubre de 2011

Nafarroako Gobernuak Foru Erkidegoko Enpresen Sektore Publikoa Antolatu eta Berregituratzeko Plana osatu du, sozietate publikoak 38tik 13ra murriztu (%66) eta haien administrazio-kontseiluetako 170 lanpostu kenduz (%47).

Gaurko saioan sozietateak Gobernuko departamentu desberdinei atxikitzea erabaki du. Aurreikusitako egutegiaren arabera, hilabete honetan osatuko dira sozietate berrien Administrazio Kontseiluak eta gerenteak izendatuko dira; azken hauek sozietate publiko bakoitza zuzentzeko planak egin beharko dituzte, Planean aurreikusita dagoen bezala kostuak aurrezteko lortzeko xedez.

Hala, Antolamendu Planak aurreikusten du foru erkidegoaren diru-kutxak urtean 28 milioi euro aurrezteko. Diru-kopuru hori aurrezteko da, sozietateak murriztuz eta ondorioz gerenteen eta administrazio-kontseiluen kopuruak ere gutxituz, baina baita orokorrean beste gastu batzuetan aurreztuz ere: %25 aholkularitzan, aseguru-primetan, banketxeen zerbitzuetan, eta publizitate, propaganda, katalogo eta azoketan; %15 konponketa eta mantentze-lanetan, garraio eta mezularietan, bulegoko eta papergintzako materialetan, bidaia eta ordezkartzako gastuetan, garbiketan eta segurtasunean; %10 langileen gastuetan, beste enpresa batzuek egindako lanetan, hornikuntza-gastuetan eta finantza-gastuetan; eta %4 erosketetan.

Sektore publikoaren mapa berria

Prozesu honen ondoren, Nafarroako Korporazio Publikoak (CPEN) 13 sozietatek osatzen dute. Horietako bakoitza jarduera-esparru zehatz bati atxikita dago, eta esparru horietako bakoitza Nafarroako Gobernuaren estrategiaren ildoko politika publiko bati dagokio.

Antolaketa berriak honako oinarritzko printzipio hauei erantzuten die: gaur egun dauden sozietateen kopurua arrazoiz murriztea, koordinazio eta eraginkortasun handiagoa lortzeko; beharrezkoak diren sozietateak



Nafarroako Jauregiaren fatxada.

Nafarroako Gobernuak garatzen dituen sektore-politiken arabera elkartu eta biltzea; enpresen sektore publikoan postuak murrizteko plan jasangarri bati ekitea, epe laburrera eta epe luzera; CPENetik berregituratu ondoren geratzen diren sozietate publikoen zeharkako funtzionamendua optimizatu eta homogeneizatzea; eta enpresa publikoen kudeaketa komunari lotutako baliabideak eta eragiketak gutxitu, zentralizatu eta koordinatzea.

Hala, mapa berria eta departamentu bakoitzarekiko atxikipena honako hauek izango dira:

- Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentua:

o Navarra de Infraestructuras Locales, S.A (NILSA) (Toki Azpiegituren Nafarroako Sozietatea, SA)

o Navarra de Servicios y Tecnologías, S.A (NASERTIC) (Zerbitzuen eta Teknologien Nafarroako Sozietatea, SA)

- Ekonomia eta Ogasuneko Departamentua:

o Trabajos Catastrales, S.A (TRACASA) (Katastroko Lanak, SA)

- Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentua:

o Empresa Navarra de Espacios Culturales, S.A (ENEC) (Kulturguneen Nafarroako Enpresa, SA).

- Hezkuntza Departamentua:

o Centro Navarro de Autoaprendizaje de Idiomas, S.A. (CNAI) (Hizkuntzen Autoikaskuntzako Nafarroako Zentroa, SA).

- Gizarte Politika, Berdintasuna, Kirol eta Gazteria Departamentua

o Navarra de Deporte y Ocio, S.L (NDO) (Kirol eta Aisiako Nafarroako Sozietatea, SM).

- Landa Garapeneko, Industriako, Enpleguko eta Ingurumeneko Departamentua:

o Ciudad Agroalimentaria de Tudela, S.L (CAT) (Tuterako Nekazaritzako Elikagaien Hiria, SM).

o Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias, S.A (INTIA) (Nekazaritzako Elikagaien Teknologien eta Azpiegituren Nafarroako Institutua, SA).

o Gestión Ambiental de Navarra, S.A (GAN) (Nafarroako Ingurumenaren Kudeaketa, SA).

o Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra, S.L (CEIN) (Nafarroako Enpresen eta Berrikuntzaren Europako Zentroa, SM).

o Sociedad de Desarrollo de Navarra, S.L (SODENA) (Nafarroaren Garapenerako Sozietatea, SM)

- Sustapen eta Etxebizitza Departamentua:

o Navarra de Suelo y Vivienda, S.A (NASUVINSA) (Lurzoruaren eta Etxebizitzaren Nafarroako Sozietatea, SA).

o Agencia Navarra de la Logística y el Transporte, S.A (ANL) (Logistikaren eta Garraioaren Nafarroako Agentzia, SA).

Orain arte bezala, hamahiru enpresa hauek Nafarroako Enpresen Korporazio Publikoa, SMBn (CPEN) barnean daude, eta hau Ekonomia eta Ogasun Departamentuari atxikita daqo.